

BERMEOKO SANTA EUFEMIA AZOKA – 2026

ONDARE PUBLIKOA ERABILTZEKO BAIMENA

1.- XEDEA

Oinarri hauen xedea **2026ko irailaren 16an, Bermeon ospatuko den Santa Eufemia azokako** postuen banaketa, erabilera eta funtzionamendua erregulatzea da.

Udalak ondare publikoaren erabilera doan baimenduko du.

Bermeoko Santa Eufemia azoka, baserritarren azoka da eta elikagaiak saldu ahal izango dira. Ez da artisauen azoka bat.

2.- KOKAPENA ETA ORDUTEGIAK.-

2.1.- Lekua: Lamera izango da.

2.2.- Ordutegia: azoka zabalik egongo da goizeko 9:00etatik arratsaldeko 15:00etara.

2.3.- Muntaketa: autoak, goizeko 07:00etatik 09:00etara sartuko dira Lamerara zama-lanak egiteko. Eta azokaren amaieran, arratsaldeko 15:00etatik 16:30era desmuntatzea izango da.

3.- AZOKAN JARRIKO DIREN PRODUKTUAK.-

1. Ekoizleek eurek ekoiztutako produktuak salduko dituzte, eskaeran adierazitakoak. Eta produktuen ardura osoa hartuko dute. Ekoizleek produktuaren kalitatearen erantzule izango dira une oro. Produktu horiek ezingo diete eragin inolako osasun edo segurtasun arriskurik kontsumitzen dituztenei, ez dute kalitatean ez kantitatean iruzurrik egingo, ez dira faltsifikatuta egongo, ezingo dira identifikatu gabe egon eta komertzializatzeko gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte.
2. Ekoizle bakoitzak berak eginiko produktua baino ezingo du saldu, bere ustiatzean edo baldintza sanitario egokiak betetzen dituen establezimendu batean sortu, elaboratu edota ontziratutako produktua. Saltzaileak berak lehengaia ekoizten ez badu, bakarrik emango zaio baimena establezimenduaren titularra bada.



3. Santa Eufemia eguneko azokan, honako produktu hauen postuak jarriko dira:

- Gazta (gehienez 6 ekoizle-6 postu)
- Ogia eta pastelak (gehienez 6 ekoizle-6 postu)
- Ortuariak (gehienez 4 ekoizle-6 postu)
- Txerriak (gehienez 3 ekoizle-4 postu)
- Txakolina/sagardoa (gehienez 3 ekoizle-3 postu)
- Beste alkoholdun edariak (gehienez 3 ekoizle-3 postu)
- Patea (gehienez 3 ekoizle-3 postu)
- Eztia (gehienez 3 ekoizle-3 postu)
- Fruta (gehienez 2 ekoizle-2 postu)
- Beste jakiak (gehienez 5 ekoizle- 5 postu)
- Loreak (gehienez ekoizle 1- postu 1)

Antolatzaileek, ekoizle bakoitzari postu bat esleituko dio, salbu ortuarien eta txerrien kasuan, non ekoizle batzuei, bi postu esleitu ahal jakoz.

Udalak beretzat gordetzen du postu kopurua modalitateka aldatzeko eskubidea, bai eta interesgarriak diren ekoizleak edo elkarteak gonbidatzekoa ere, baldin eta izena emateko epea amaitu ondoren postu hutsik geratzen badira.

Postu horiek puntuazioaren arabera esleituko dira, balorazio-irizpideen eta aurkeztutako produktuen tipologiaren arabera, betiere azokaren helburuekin eta filosofiarekin bat badatoz.

4.- IZEN EMATEA.-

4.1.- Epea: Bizkaiko Aldizkari ofizialean argitaratzen denetik abuztuaren 12ra arte (asteazkena).

Eskaerak aipatutako epeez kanpo aurkezten badira, ez dira onartuko, eta izapide gehiago egin gabe artxibatuko dira. Hala ere, postuak esleitu ondoren, esleitu gabeko postuak egongo balira, eskaera horiek postu huts horiek eskuratu ahal izango dituzte.

4.2.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- **Eskabide orria** egoki osotuta.
- **Zinpeko aitortpena** sinatuta.

4.3.- Eskari orriak aurkezteko:

Eskatzaile guztiek Alaiki Zerbitzu Gizakulturalak SL enpresan izena eman behar dute parte hartzeko eta dokumentuak bidali behar dira posta arruntez edo posta elektronikoz



Emaillez: azoka@alaiki.eus

Posta arrunta:

Alaiki Zerbitzu Gizakulturalak SI

Igeltzera enpresa parkea - Barrikako bidea, 2 - D4 pabilioia

48610 URDULIZ (Bizkaia)

4.4.- Osorik ez dauden edo akastunak diren eskabideak

Aurkeztutako eskabidea edo erantsitako dokumentazioa osorik ez balego edo konpon daitekeen akatsik baleuka, eskatzaileari esango zaio 3 lan eguneko gehienezko epean konpontzeko, jakinarazpen hori egin eta biharamunetik zenbatzen hasita. Jakinaraziko zaio, halaber, horrela egin ezean eskabidea bertan behera geratuko dela.

5.- POSTUAK ESLEITZEKO BALORAZIO IRIZPIDEAK.-

Aukeratze prozedurak bermatu egingo ditu gardentasun, inpartzialtasun, bereizkeriarik ez eta publizitate printzipioak. Konkurrentzia publikokoa izango da, eta norgehiagoka sistemaren bidez ebatziko da.

Bermeoko Udalak, Santa Eufemia azokaren postuak esleitzeko honako balorazio irizpide hauek erabiliko ditu:

- a. 0 kilometroko ekoizleak: gehienez, 15 puntu.
 - Herriko produktoreak: 15 puntu
 - Busturialdeko produktoreak: 12 puntu
 - Bizkaiko produktoreak: 10 puntu
 - Euskal Herriko produktoreak: 5 puntu
 - Beste autonomia-erkidego batzuetako produktuak: 2 puntu
- b. Kalitatea: gehienez, 5 puntu.
 - Eusko Labela, Bizkaiko sagardoa, Bizkaiko txakolina, Idiazabal - jatorrizko denominazioa-, produktu ekologikoak edo besteren bat: 5 puntu
- c. Emakume ekoizleak: gehienez, 5 puntu.
 - Eskatzailea, ekoizlea, emakumea bada: 5 puntu
- d. Sariak: gehienez, 15 puntu.

2021. urtetik aurrera lortutako sariak:

 - Euskal Herriko txapelketak: 3 puntu
 - Eskualdeko txapelketak: 2 puntu
 - Herrietako txapelketak: puntu 1



- e. Bermeoko azokan edota Bermeoko azoka berezietan parte hartzea:
 gehienez, 20 puntura arte.
- Astero parte hartzea: 10 puntu
 - Santa Eufemia azokan parte hartzea azken bi urteetan: 5 puntu urte bakoitzeko

6.- POSTUAK AUKERAKETZEKO PROZESUA.-

Izena emateko epea amaitu ondoren, Alai Zerbitzu Gizakulturalak SL enpresak eskaera guztien zerrenda osatuko du eta hurrengo 10 eguneko epean Bermeoko Udalean aurkeztuko du.

Bermeoko Udalean, Kultura Sailak dokumentazioa aztertuko du eta postuen esleipen proposamena egingo da. Ebazpena, Alkatetza dekretuz hartuko da eta Udaleko web orrian argitaratuko da.

Eskaerek ez badute gainditzen produktu bakoitzeko azokak aurreikusitako postu kopurua, zuzenean esleituko dira. Bestela, ekoizleen aukeraketa puntuazioaren arabera izango da. Puntuazio bera lortzen dutenen artean, postuak zozketa bidez esleituko dira. Ondoren, onartuen zerrenda eta itxarote-zerrenda argitaratuko dira, Bermeoko udalaren web-orrian.

7.- ESLEIPENERAKO PROPOSATUAK: DOKUMENTAZIOA.-

Postu bat lortzeko proposatutakoek honako dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte Alai Zerbitzu Gizakulturalak SL enpresan, 2026ko irailaren 7a baino lehenago.

- 1) NAN, AIZ edo IFKren kopia, pertsona juridikoen kasuan edo Europar Batasuneko este estatu kideren batean emandako antzeko frogagiria. Batasunetik kanpoko pertsonen kasuan, bizileku eta lan baimena. Edo hemen bizitzeko eta lan egiteko gaitzen dituen beste edozein dokumentazio bestela.
- 2) Nekazaritzako ustategiaren txartela: produkzio propioaren kasuan.
- 3) Produktuaren osasun-erregistroa, horrela badagokio.
- 4) Zerga betebeharren (Ogasuna) ordainketan egunean egoteari buruzko ziurtagiria eguneratua. Dokumentua eskatzailearen izenean egon beharko da, ez da onartuko enpresaren izenean egotea, eskatzailea pertsona fisikoa bada.
- 5) Gizarte Segurantzarekin ordainketan egunean egotearen ziurtagiria eguneratua. Dokumentua eskatzailearen izenean egon beharko da, ez



da onartuko enpresaren izenean egotea, eskatzailea pertsona fisikoa bada.

- 6) Osasuneko erregistro-zenbakia edo osasuneko baimena (giza kontsumorako elikagaien kasuan).
- 7) Jarduera ekonomikoaren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruaren agiria osatuta, aseguru etxeak sinatuta edo poliza eta erreziboa indarrean.
- 8) Jarduera ekonomikoen gaineko zergan altan eta egunean egotearen agiria.
- 9) Elikagaien manipulatzailer txartela edo baliokidea den ikastaroaren ziurtagiria, ontziratutako gabeko produktuen salmentaren kasuan.
- 10) Salduko diren produktuak identifikazioa, euren jatorria bermatuta.
- 11) Postuak esleitzeko zinpeko aitortzearen jasotako irizpideetatik jaso ahal diren puntuak justifikatzeko agiriak.

Dokumentu bat ez bada derrigorrez aurkeztu behar, zinpeko aitortzearen bat aurkeztu beharko da arrazoiak ematen.

Dokumentu guztiek pertsona edo enpresa beraren izenean egon behar dute.

Dokumentu horien fotokopiak aurkeztu beharko dira. Ez da tramitatuko dokumentazioa irakurtzekina edota osatugabea den inolako eskaerarik.

Aipatutako dokumentuak aurkezten ez badira edota aurreko atalean aurreikusitakoa zehatz betetzen ez bada, esleipenari uko egiten zaiola ulertuko da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 68. artikuluan xedaturikoan izan ezik.

Behin errekerimenduak epez eta modu egokian bete dela egiaztatuta, proposamena esleipena egiteko eskumena daukan organora bideratuko da, esleipen-erabakia har dezan.

Esleipendun batek uko egiten badu, kontratazio-mahaiak bere proposamenean zehaztutako hurrenkerari jarraituta, hurrengo hautagaiari errekerimendua bidaliko zaio gorago adierazitako dokumentuak aurkeztu ditzan.

Onartu ez direnek itxaron-zerrenda bat osatuko dute, puntuazioaren arabera. Onartuen artean baja bat bada itxaron-zerrendan puntuazio altuena duenak postua hartuko du. Berdinketaren kasuan zozketa egingo da.



8.- BAIMENAREN BALDINTZAK.-

- a) Baimendutako produktuak bakarrik saldu daitezke, ekoizleek eurek egindakoak. Eta produktuen ardura osoa hartuko dute.
- b) Kremak eta antzekoak ezin dira saldu, Foru Aldundiaren arauaren arabera.
- c) Dagozkien legeak eta sektore-araudiak bete behar dira, batez ere higieneari, osasunari eta segurtasunari buruzkoak.
- d) Ekoizleek hozkailuak edukiko dituzte, euren produktuak hotzean mantendu behar direnean, adibidez, txerriak. Eskabidean zehaztuko dute.
- e) Postu bakoitzean, produktu bakarra (mota bakoitzeko) salduko da; baimena izanez gero bi, baina ez gehiago.
- f) Salmentan jartzen diren produktuen prezioak behar den bezala ikusteko moduko karteletan azalduko dira.
- g) Baimena aurtengo azokarako soilik izango da. Sekula ez du berritze automatikorako prozedurarik eragingo.
- h) Udalak edozein unetan egin ahal izango ditu eskatzen diren baldintzen zerga arloko zein gizarte segurantzarekiko betekizunen inguruko egiaztapenak. Egiaztatzen bada interesdunak ez dituela betetzen finkatu diren baldintzak, baimena bertan behera utzi daiteke.
- i) Azoka egunean, antolatzaileak eskumena izango du postuaren titularrarengatik galdetu, argazkiak atera eta produktua saltzeko baimena betetzen den ikusteko.
- j) Udalak parte hartzeko eskabidean zerrendatu ez ziren eta baimendu ez diren produktuak kentzeko eskubidea izango du.
- k) Udalak eskubidea izango du postuaren eta bertan erakusgai dauden produktuen argazkiak egiteko, eta euren argitalpenetan eta sustapen ofizialetan erabili ahal izango dira argazki horiek.

9.- BAIMENAREN TITULAR DIREN PERTSONEN BETEKIZUNAK.-

- a) Antolatzaileak adierazitako lekuan postua jarriko du, hau da, kokapena, azokaren antolatzaileen esku geratzen da. Eta ekoizleek antolakuntzak egindako kartelak ikusgai jarriko dituzte.



- b) Baimena jasoz gero, horren titularrak pertsonalki jardun beharko du kasuan kasuko jardueran, bai zuzenean bai behar bezala baimendutako enplegatu edo laguntzaileen bidez, aurrez jakinaraziz azokako antolatzaileei nor egongo den baimendutako saltokian eta bere NAN zenbakia erraztuz.
- c) Azokaren ordutegiak errespetatzea (salmentarako, autoak sartzeko eta irtetzeko...)
- d) Baimenean jaso gabeko produktuak saltzen hasiz gero, kautelazko neurri gisa saltokia jasoarazi ahal izango da, baldin eta edozein bitarteko egokiren bidez eta aurrez eskatuta titularrak ez badu egiaztatzen horretarako baimena duela edo daukan baimenak beste produktu horiek ere saltzeko baimena ematen diola.
- e) Uneoro bere produktuen kalitatearen arduradun izango dira, ezingo dute arriskurik eragin kontsumitzaileen osasun edo segurtasunerako, ezta kalitate edo kantitate aldetiko iruzurrik ere, eta ezingo dira produktu faltsifikatuak edo identifikatu gabeak izan, edo merkatura ateratzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak.
- f) Azokara joan ezina, aurrez jakinarazi beharko da azokako antolatzaileei.
- g) 2016ko abuztuaren 10ean, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Kalek kaleko salmenta Bermeon arautzen duen Ordenantzak xedatzen duena bete beharko da.
- h) Osasun legediaren araberrako aplikagarria den gainerako legedia guztia bete behar da.

10.- HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK.-

- a) Azokako postuetan ipiniko diren elementu idatzi guztiak (prezioak, prezioen zerrendak, oharak, kartelak zein beste edozein idatzizko elementu) euskaraz idatzita egongo dira. Euskara eta gaztelania biak erabiltzekotan, euskarari lehentasun osoa emango zaio.
- b) Azokako postuetan ipiniko diren idatzi guztien mezuetan, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako araudia errespetatu beharko dute, hizkuntza inklusibo ez sexista erabiliaz.
- c) Postuetan egongo diren pertsonak elebidunak izatea gomendatzen da, eta agurrak eta lehenengo berba euskaraz egingo dira.

Udalaren Itzulpen Zerbitzuaren laguntza teknikoaz baliatu ahal izango dira ekoizleak maila idatzirako ezarritako hizkuntza-irizpideak betetzeko



11.- ARAUDIA EZ BETETZEA.-

Zortzigarren eta bederatzigarren artikuluetan jasotakoak ez betetzeak honako Zigor araubidea aplikatzea dakar.

12.- ZIGOR ARAUBIDEA.-

12.1.- Arau-haustekak:

Aplikagarriak diren xedapen sektorialeak, batez ere jarduera komertzialari buruzko legediak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileak babestekoak, ezartzen dutenaz gain, arau-hauste administratiboak izango dira araudi hau urratzen duten ekintzak edo ez-egiteak, eta udal administrazioak edo administrazioaren agenteek araudia aplikatzeko unean egin mandatu eta errekerimenduak ez betetzea.

12.2- Arau-hauste motak:

1. Arau-hauste arinak izango dira honakoak:

- Salmentan aritu ahal izateko identifikazio kartela toki ikusgarrian ez edukitzea.
- Azoka egiten ari den bitartean ibilgailuarekin ibiltzea salmentarako finkatutako perimetroan, edo ibilgailuak aparkatzeko ez diren lekuetan aparkatzea.
- Emandako postua baino gehiago hartzea.
- Araudi honetako aginduak ez betetzea dakarren eta larri edo oso larritzat jaso ez dagoen beste edozein ekintza edo ez-egite.

2. Arau-hauste larriak izango dira honakoak:

- Bi arau-hauste arin edo gehiago egitea, ebazpen irmo batez horrela jaso denean.
- Baimena edo NAN ez aurkezta antolatzaileak izendatutako pertsoneri.
- Baimenduez bestelako gauzak saltzea.
- Saltoki baimenduaz aparteko toki batean jartzea.
- Emandako espazioa baino handiago hartzea oinezkoak igarotzeko, irisgarritasunerako edo mugikortasunerako eragozpenak sortuz.



- f) Azokara ez agertzea, arrazoi justifikaturik zein jakinarazpen idatzirik gabe.
- g) Datuak emateari uko egitea, edo ikuskaritza eta kontrol eginkizunetan ari diren antolatzaile, udal agintari, funtzionario edota agentek eskatutako informazioa emateari uko egitea, eta informazio oker, osatugabe edo gezurrezkoa ematea.
- h) Baimendutako espazio-erabilerak baliaturik baimendu gabeko jarduera edo okupazioetan aritzea.
- i) Jendearekiko edo oinezkoekiko errespeturik gabe, koakzioz edo mehatxuz jokatzeari, eta bita bere eginkizunetan ardi diren antolatzaile, udal agintari, funtzionario edo agenteekin portaera horiek edo erresistentzia erakustea ere.
- j) Araua hausten duten jarduerak bertan behera uzteko errekerimendua ez betetzea.

3. Oso arau-hauste larriak izango dira honakoak:

- a) Azokan salmentan aritzea udal baimenik gabe. Baita saltokia titularra ez den edo titularraren senide, enplegatu edo lankide baimendua ez den batek eramatea ere (horietako pertsona batek eraman behar duenean saltokia, eskaera-inprimakian adierazi behar da)
- b) Osasun aldetiko oso arau-hauste larriak direnak edo pertsonen segurtasunerako oso arrisku larria dakartenak.
- c) Kontsumitzaileei kalte larriak eragiten dizkietenak.
- d) Dokumentazio manipulatu edo gezurrezkoa matea.

12.3.- Arau-hausteen arduradunak

- a) Azokako salmentan aritzeko udal baimenen titularrak izango dira egiten dituzten arau-hausteen arduradunak. Era berean, berea izango dute ardura, jardueran aritzeko baimenduta dauden beste pertsonak arauak hausten dituztenean.
- b) Arau-hausteen eraginez pertsona edo ondasunei –tartean direla ondasun publikoak, hala nola espazio publikoa eta bertan instalatutako altzari-elementuak- kalteak eragiten zaizkienean, titularrak izango dira, halaber, kalte horien erantzule. Ondasun publikoetan kalterik sortzen bada, eta arau-hausleak berak konpondu ezean udalak baimenduta, tasazioa egin



eta zerbitzu tekniko gaituek egingo dituzte konponketa-lanak. Ondoren, horiek ordaintzea eskatuko zaio arau-hausleari.

12.4.- Zigorrak

- a) Arau-hauste arinak ohartarazpenez zehaztuko dira.
- b) Arau-hauste larriak salmenta jarduera urtebetez etenez zehaztuko dira. Jarduera berehala eteteko agindua eman ahal izango da edota salgai diren gaiak konfiskatzeko.
- c) Oso arau-hauste larriak salmenta jarduera urtebetez etenez zehaztuko dira. Jarduera berehala eteteko agindua eman ahal izango da edota salgai diren gaiak konfiskatzeko.
- d) Zigorrekin batera ezarri ahal izango da merkantzia faltsifikatu, iruzurrezko edo identifikatu gabea konfiskatzea, kontsumitzaileei arriskua sor diezaiekenean.

12.5. Zigorren mailaketa

Zigorak ezartzeko unean neurria hartu beharko da, hain zuzen zigorren maila arau-haustearen larritasunari egokitu dakion; horretarako, ondoko irizpide hauek segituko dira bereziki:

- a) Osasunari edo segurtasunari kaltea eragiteko arriskua, egiaz eragindako kaltearen izaera edo neurriarekin batera.
- b) Asmo txarrik izan den edo gauza errepikatua izan den.

12.6. Zigor prozedura

Arau-hauste administratiboa eragin duten gertaerek arau-hauste penalaren maila izan dezaketenean, zigor prozedura abiatzeko organo eskudunak organo judizial eskudunari emango dio aditzera, eta utzi egingo dio abiatutako zigor prozedurarekin segitzeari, harik eta agintari judizialak erabakia eman duen arte; dena den, udalak egoki deritzen kautelazko neurriak hartu ditzake.

